

TXOSNAK GUZTIONTZAT

Mugimendu Sozialistak Gasteizko jaietan txosna jarri ahal izateko udalean egindako ezohiko baimen eskaeraren berri publikoki azaldu zuen joan den astean, eta arazoa eta egindako adierazpenak aztertu ostean, gure ikuspuntua publikoki azaleratzea erabaki dugu, konpondu gabe dagoen afera hau ahalik eta modurik egokienean bideratu dadin.

Urteak daramatzagu Gasteizko eta Arabako bizitza soziokulturalean modu batean edo bestean parte hartzen, bakoitzaren eremu edo auzotik, norbanako bezala eta modu kolektiboan, borondatez gure denbora eta ilusia jarri dugularik Herri Mugimenduetan belaunaldiz belaunaldi parte hartu duten beste ehunka lagunek bezala. Zorionez kateak ez du etenik eta belaunaldi berriak gogotsu datoz hiriaren bizitza aberasteko asmoz.

Batzuk txosnetan txanda ugari egin ditugu, ardurak izan ditugu, kulturgintzan eta herrigintzan gogoz jardun gara... eta gauza jakina da, finantzatzeko, eragiteko eta ikusgarritasuna eskuratzeko tresna ezinbestekoa direla dira jaiak eta txosnak, zeresanik ez egoera ekonomiko latza duten mugimendu txikientzat. Une honetan, batzuek arazoak dituzte beren jarduna aurrera eramateko eta jaietan parte hartzeko, eta hori ez da onargarria.

Eztabaida korapilatu beharrean arazo zehatz eta objektiboa hori dela ez dugu ahaztu behar. Desberdin pentsatu ala ez, gazteen artean indar handia duen mugimendu berri batek, jaietan besteen modura eta eskubide eta betebeharrak berdinekin parte hartzeko une honetan dituen zailtasunak oso larriak dira, eta aurrekari arriskutsu bat.

Kezkagarria iruditzen zaigu gazte batzuei edo besteei horren ardura egoztea, ba daudelako guzti hau saihesteko gaitasuna, erantzukizuna eta bitartekoak dituzten erakunde eta eragile inplikatu ugari. Zentzu horretan, Gasteizko udala bera eta bertan dauden alderdi politikoak ez dira ikusle soil bat, erantzule nagusietako bat baizik. Interes eta kalkulu politikoak alde batera utziz arduraz jokatzeko deia egin nahi dugu. Elkarrizketa entzun eta geroz eta anitzagoa den gizarte, erakunde eta herri mugimenduen ehundura onartu dezagun. Garaiz gabilta oraindik joko arauak berriro, formula eta espazio berriak sortu, eta elkarlanean oinarrituriko jaien espiritua berreskuratzeko.

Jaiak guztienak izan behar dira, eta baita jai eremuak ere. Gasteizko udalean ordezkaritza politiko instituzionala duten alderdi politikoek ere jaietan guztion parte hartzea bermatzeko ardura eta erantzukizuna dutela uste dugu, ez dagoela beste alde batera begiratzerik. Horregatik, une honetan soluziorik egokiena delakoan, Mugimendu Sozialistak txosna hiriko beste gune batean kokatu ahal izateko egindako eskariari erantzun positiboa eman diezaion eskatzen diogu Gasteizko udalari.

Jaiak guztion artean eta guztiontzat egin ditzagun gutxieneko baldintzak: aukera berdintasuna, eskubide eta betebeharrak berdinak, jai-guneen erabilera publiko, herrikoi eta anitza, elkarbizitza eta jai giro sanoa bermatzeko deia egiten dugu eta bakoitzak bere eremutik hau posible izan dadin ahal duena egin dezan gonbidatu, eten luzearen ostean Gasteizek merezi dituen jaiak izan ditzan. Guk ere horretarako konpromisoa hartzen dugu. Jai anitz, herrikoi, partehartzaile eta giro oneko batzuk opa dizkiogu Gasteizko hiriari! Gora Zeledon eta gora jai herrikoiak !

Gasteizen, 2022ko uztailaren 28an

SINATZAILEAK / FIRMANTES Oihane Perea, Rebeka Gonzalez de Alaiza, Mati Iturralde, Juantxu Ozkoz, Goiza Perez, Oier Azkarraga, Angel Madina "bodegas", Amparo Lasheras, Mikel Elorza, Patxi Garcia "Poio" eta Gorka Aurrekoetxea

TXOSNAK GUZTIONTZAT

Después de conocer la petición de presentada en el consistorio para colocar txosna de manera extraordinaria y con un nuevo emplazamiento hecha pública la semana pasada por parte del Movimiento Socialista, los abajo firmantes queremos dar a conocer nuestro punto de vista respecto a este tema que sigue pendiente, y que esperamos que se arregle cuanto antes de la manera más adecuada posible.

Llevamos muchos años participando de una u otra manera en la vida sociocultural de Gasteiz Araba y, cada uno desde su ámbito o barrio, de manera individual o colectiva, de tal manera que hemos ido poniendo nuestra ilusión y nuestro tiempo como otras muchas personas en esta ciudad. Por suerte la cadena continúa y vienen nuevas generaciones que han comenzado su andadura con muchas ganas e intención de trabajar y aportar a la vida de nuestra ciudad.

Algunos hemos hecho multitud de turnos, hemos tenido distintas responsabilidades, hemos trabajado con muchas ganas en enriquecer la cultura y la construir una ciudad más justa e igualitaria... Y es de sobra conocido que las fiestas y las txosnas son un instrumento imprescindible para financiarse, transformar la sociedad en ambiente festivo y adquirir visibilidad, más aún para los colectivos pequeños con dificultades económicas. En este momento hay quien tiene problemas para llevar a cabo su labor y para participar en las fiestas, cosa que no es en absoluto aceptable.

En lugar de enrarecer el debate, deberíamos recordar todos cuál es el hecho en cuestión. Pensemos igual o diferente, hay que reconocer que hay un colectivo que tiene dificultades para participar en las fiestas con los mismos derechos y deberes que los demás, poniendo un peligroso antecedente de cara al futuro.

Nos parece preocupante querer culpar a unos u otros jóvenes de esta situación, porque hay instituciones y agentes implicados que tienen en sus manos la posibilidad de solucionar esto. En ese sentido, El Ayuntamiento de Gasteiz y los partidos políticos que tienen representación institucional en él, no son meros espectadores, sino responsables directos de esta situación. Queremos hacer un llamamiento a que dejen a un lado los intereses y cálculos políticos y actúen con responsabilidad. Que nos escuchemos los unos a los otros y aceptemos este tejido social cambiante y cada vez más variado que existe en nuestra ciudad. Todavía estamos a tiempo de actualizar las normas del juego, de crear fórmulas y espacios que se adecúen a la nueva realidad y se recupere el espíritu de participación y colaboración que las fiestas necesitan.

Las fiestas tienen que ser para todas y todos, al igual que los espacios festivos. Son los partidos políticos con representación en el consistorio los que tienen la responsabilidad de asegurar que eso sea así. No se puede mirar hacia otro lado. Emplazamos a Ayuntamiento de Gasteiz a que responda al movimiento socialista de manera positiva para que pueda colocar txosna en otra ubicación, ya que consideramos que es la opción más razonable en este momento.

Pongamos pues las bases necesarias para que las fiestas sean de todas y para todas, para que tengamos las mismas oportunidades, derechos y obligaciones. Aseguremos el uso público, popular y plural de los espacios festivos y recuperemos ese ambiente sano que añoramos, para que Gasteiz pueda disfrutar cuanto antes de las fiestas que tanto se han hecho esperar. Hacemos nuestro este compromiso. Deseamos que Gasteiz pueda disfrutar este año de las fiestas populares, participativas y con el buen ambiente que se merece. Gora Celedon eta gora jai herrikoiak!!!

Vitoria-Gasteiz, 28 de julio de 2022